

Euskal musika garaikidea oinarri, Haatik dantza konpainiaren azken lanean

"OTS" ikuskizunaren aurrestreinaldia izango da Saroben, asteburu honetan, euskal musika garaikidearen lehen grabazioak egin ziren herrian / 6-9

HAATIK

Garrantzi handiko partidak

Gorengo futbolean, Euskaldunak Ubitarteko partida irabazi behar du lehen postuari eusteko. Urnietarrek, bestalde, igoera jokoan dute larunbatean. / 13



Axerien puska-biltzea egingo dute, larunbat honetan, Goiburu auzoan / 14



Asmo berriak agertu ditu Hogar Extremeñoako ardura hartu duen lantaldeak / 3

Postontzia: Euskal Herriko Torturatuen sarearen aurkezpen-ekitaldia / 2

"Etxebizitza hutsak eta jabetza-eskubidea", Marce Garciairen iritzi-artikularia / 4

Aiurrikide izatea **%30 merkeago**

Aiurrik **lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2024ko jardueran** Aiurri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitortzea egiterakoan.



Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez aiurrikide

AIURRI KIDE

POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO TORTURATUEN SAREA EUSKAL HERRIA

Euskal Herriko Torturatuen sarearen aurkezpen-ekitaldia

Urtebeteko prozesua amaitzear dugun honetan, zuekin hainbat hausnarketa eta ohar partekatzea gustatuko litzaiguke. Lehenik, Euskal Herriko Torturatuen sarearen sortze-prozesua balioan jarri nahiko genuke berriro ere. Orain dela urtebete, erronka horri ekingo zion talde-sustatzaila aurkeztu genuen, eta Euskal Herriko torturatuak sarearen sortzearen ardura gure gain hartu. Orduetik honakoa behetik gorako eratze prozesu iraunkorra izan da. Torturatuak izan diren ehunka lagunekin egon gara azken hilabeteetan, modu diskretuan haiekin harremana eginez eta soilik torturatuentzako zuzenduak zeuden hamarnaka aurkezpen batzar eginez, Euskal Herriko hainbat eskualdetan. Ariketa sakon bezain osasungarria izan da, kontziente garelako tortura pairatu dugunok barruan dugun minaz, baina baita min hori askatu eta horrekin zerbait egiteko dugun beharraz ere.

Eta sinetsita gaude hori lortu dugula torturatuak izan garen pertsonon artean sortzen den elkar-ulertze eta konexio berezia izan delako ariketa guztiaren oinarria. Elkar zainduz eta entzunez, elkar ulertuz eta babestuz.

Euskal Herriko Torturatuen sareko kide izatea hori ere baita, elkar ulertzeko eta zaintzarako espazioa beste lagun torturatu batzuekin partekatzea.

Herri honetan oraindik ere argia ikusi gabeko sufrimendu handia dugu, milaka eta milaka izan gara torturaren amesgaiztoa pairatu izan dugun euskal herritarrak. Egin ziguten horrek gure bihotzeko txoko ilun eta ezkutuean gordeta jarraitzen du. Eta lagun torturatu horiei guztiei deia luzatu nahiko genieke: izan Euskal Herriko Torturatuen sarearen parte, aitortzaren bidea elkarrekin urratuko dugula sinetsita baikaude. Badakigu zer sufritu zenuen eta bakarrik ez zaudela transmititu nahi dizugu.

Bigarrenik, jasandako torturen kontzientzia hartzeko momentua heldu dela uste dugu. Elkarrizketa ezberdinetan atera zaigun elementua izan baita torturak jasan izanaren ukapena: "Ni ez ninduten horrenbeste torturatu", "niri elektrodoak edo poltsa ez" edota "nik ez dut torturarik pairatu". Gure ustez, Euskal Herrian azken sei hamarkadatan jasan dugun tortura horren bortitza izan da, horren langa altua jarria dago, tortura jasan

duten kide askok uste dutela, haiei emandako kolpeak, hamar egunez kalabozoko argia piztua edukitzeak, biluzik jartzeak edota begiak estalirik egindako galdeketak ez direla tortura. Eta haiengana zuzendu nahi dugu ere bai: bai, horiek guztiak ere tortura dira. Zuk jasan zenuena ere tortura izan zen, eta Euskal Herriko Torturatuen sarean baduzu lekua.

Asko kostatzen da gure burua torturatutzat errekonozitzea, errealtate horri aurre egitea. Jasaten ari zinen hori gelditzen saiatzeko eraiki behar izan zenituen defentsa mekanismoak ez dira zure ardura. Kendu zama hori ere gainetik. Sistema oso bat eraikia zuten haien eskuetan erortzen ziren pertsonak suntsitzeko, baina lortu ez zutela erakusteko garaia heldu zaigula uste dugu. Aitortzaren bidea urratzeko garaia, guztiok elkarrekin. Ez gara torturaren biktimak, torturaren bizirauleak gara.

Donostiako batzarra 10:30ean hasiko da, larunbat honetan. Otsailaren 15ean Donostian ikusiko dugu elkar! Euskal Herriko Torturatuen sarea sortzen ari gara!

POSTONTZIA

BOIKOTA, DESINBERTSIOAK ETA ZIGORRAK EKIMENA GIPUZKOA

Carrefourrik? Ez, eskerrik asko

Zer gehiago esan, Israel Palestinan egiten ari den sarraskiaz? Bada, esan dezagun badela zer esan, zer egin, ez gaudela konforme adierazteko: boikota Carrefour-i!

Nolatan ba Carrefourri boikota? Gatozen hasierara: 2005ean aldarrikatu zuen palestinar gizarteak Boikota, Desinbertsioak eta Zigorak kanpaina (BDS deitua nazioartean: bdsmovement.net), Israelen politika suntsitzaileen aurka eta palestinarren eskubideen defentsan. Geroztik, Israelen apartheid eta kolonizazio sistemaren eragile edo konplize diren hainbat enpresa eta erakunderen salaketa etengabea diardu BDS kanpainak. Helburua, nola ez, salatutako eragile horiek sentitu dezaten boikot helburu direla, oraintxe jada genozidio baten eragile edo konplize direla, eta ez dugula onartzen haien jarrera. Gure erantzuna: boikota horiei guztiei.

2022ko martxoan, Carrefour talde frantziarrak Israelgo Electra Consumer Products enpresarekin frankizia elkarte bat osatu zuen. Alta, Electra Consumer enpresak parte hartzen du Zisjordaniako legez kanpoko kokaleku kolonialetan, eta haren bidez Carrefour markako produktuak zabaltzen ditu; halaber, Carrefourrek baimena eman dio Electra Consumerri, bere markako produktu batzuk Israelen ekoizteko eta Carrefour markarekin merkaturatzeko. Aipatzekoa den beste jarduera

bat: Carrefourren filiala den Carrefour-Israel markak Gazako genozidioan parte hartzen ari diren soldadu israeldarrei pakete pertsonalak oparitu dizkie, sostengu gisara.

BDZ kanpaina zuzentzen duen Palestinako Batzorde Nazionalak (BNC deitua nazioartean) Carrefour Taldeari boikota egiteko eskatu digu, mundu zabalean palestinar herriaren eskubideak babesten ditugun guztioi, harik eta:

1. Israelgo Electra Consumer Product-ekin duen frankizia hitzarmena amaitu, eta
 2. Carrefourrek mundu osoan dituen milaka supermerkatu eta dendatan, Palestinako lurralde okupatuetan Israelek legez kanpo dituen kokalekuetan ekoizitako produktuen salmenta guztiak bertan behera uzten dituen arte.
- Beraz, Euskal Herriko BDZ taldetik horixe bera eskatzen dizuegu euskal herritar guztioi: Carrefourri boikota!

Eta Boikotaren aldeko aldarria egiteko, elkarretaratzeak antolatuta ditugu datozen egunetan. Ostiral honetan, otsailak 14, Andoaino Zumea plazan (19:00). Eta, larunbatean, otsailak 15, Carrefourrek Oiartzuneko Lintzirinen duen merkatalgunearen aurrealdean (12:00).

Carrefourri boikota? Bai, eskerrik asko.

Joseba Pagaza gogoan

Aurreko larunbatean Andoaino PSE-EEK lore-eskaintza egin zuen Joseba Pagaza urtuaren omenezko eskulturaren, ETAK hura hil zueneko 22. urteurrenean. "Pagaza"ren senitartekoei ekitaldi publikoak egiteari utzi badiote ere, Andoaino sozialistek lore-eskaintza egin zuten. Lainezek, bertaratu zirenen aurrean, hitza hartu zuen.



PSE-EE

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

- Iritzia
- Postontzia



Argazkian, ageri dira: Cristina Matilla, Alazne Saez, Ricardo Seara, Daniel Alaminos eta Jose Manuel Rainha. Zuzendaritza, honako bazkideek ere osatzen dute: Susana Garcia, Armando Fernandez, Oscar Gonzalez, Hector Gonzalez, Javi Rosa, David Martinez eta Javi Gonzalez. AIURRI

Zuzendaritza talde berria Hogar Extremeño

Andoaingo Hogar Extremeño elkarteak lemazain berriak ditu eta egitasmo ugari dituztela adierazi dute Cristina Matilla eta Alazne Saez eragile berrietako bik

Xabier Lasa ANDOAIN

Hamabi bazkidek hartu berri dute Hogar Extremeño "El Miajón de los Castúos" Andoaingo elkartearen zuzendaritzaren ardura, eta horietako bik, Cristina Matillak eta Alazne Saezek, ziurtatu dutenez, gogotsu heldu diote erantzukizunari, "elkar-tearen urteroko dinamikan ohikoak diren kulturarekin eta gastronomiarekin lotutako ekitaldiei eustez gain, beste zen-

bait ekimen antolatu nahi ginituzke". Helburua zein den nahiko argi daukate: elkarteak herrira gehiago zabaltzea. Horretarako, besteak beste, herri-

ELKARTEA ANDOAIN HERRIRA GEHIAGO ZABALTZEA DA EGUNGO JUNTAKIDEEN ASMOA

ko kultur elkarteekin elkarlanean jardun nahi dute, eta aldi berean, Extremadura eta Euskal Herriko kulturak elkarganatu-ko dituzten ekimenak bultzatu

1977AN HAINBAT LAGUNEK AUZOLANEAN SORTU ZUTEN ELKARTEA



Daniel Alaminos eta Jose Manuel Rainha, parrilla berrian. AIURRI

Parrilla eraberritu dute

Daniel Alaminos eta Jose Manuel Rainha zuzendaritza-talde berriko kideak sukaldeko parrilla txukundu eta eraberritzen aritu dira azken asteetan, eta, joan den asteburuan eduki zuten estreinatzeko aukera elkartera afaltzera bertaratu ziren lagun kuadrillek. Gauzak horrela, Hogar Extremeño bazkideek betidanik famatu izan dute bertako parrilla, eta badauzkate arrazoiak horrela egiten segi dezaten.

nahi dituzte. Xede hori argi edukirik, hasiak dira dagoeneko hariak mugitzen, eta emaitzak aurrerago zehaztu ahal izatea espero dute, Matillak eta Saezek Aiurriri adierazi diotenez.

Extremadurarekiko loturak irauten du

1977an, jatorriz Extremadurakoak izan eta Andoainen bizi ziren hainbat lagunek elkarte sortu zuten auzolanean. Kalkuluak eginez, bi urte barru mende erdiko bizitza beteko du elkarteak.

Nahiz eta handia izan den 50 urte horietan bazkideen joan-etorria, eta gizartea bera ere asko aldatu den, elkarteak hasierako urtetan eduki zuen bizitasunari eusten diola adierazi dute: "Egunero edukitzen du mugimendua, izan urtebetetzeen ospakizunekin, mahaiko kartajolasekin, afaltzeko biltzen diren kuadrillekin...".

EXTREMADURAKO KULTURAREKIKO ATXIKIMENDUA SENTITZEN DUTENEN TOPALEKUA DA

Bazkideen profila aldatu egin da denboraren poderioz baina belaunaldi zaharrek berriei lekukoa etengabe pasatzen asmatu dutela gaineratu dute. "Extremaduran jaiotakoak ziren gehien-gehienak, baina aldatzen joan da errealitate hori hamar-kadetetan, normala denez". Horrela, Extremadurarekiko lotura familiarra edo afektiboa aldatu den arren, ez dela galdu, ziurtatu dute.

Era horretan, Extremadurako kultura, gastronomia eta ohiturekin atxikimendu berezia sentitzen duten pertsonen topaleku izateko sortu zuten elkarteak, eta belaunaldi berriek filosofia hori errespetatzen eta sustatzen segitzen dute, modu batera edo bestera.

150 bazkide dituen elkarteak

Ehun eta berrogeita hamar bazkide ditu Hogar Extremeño elkarteak, egun. Hamar euroko kuota ordaindu behar izaten dute, hileroko; jubilatuek salbetsita dute kuota. Bestalde, elkarteak ateak irekita dauzka bazkide izan nahi lukeen orontzat; 150 euro ordaintzea eskatzen zaio bazkide berri horri, sarrera gisa.

IRITZIA

MARCE GARCIA STOP DESAHUCIOS - ETXEGABETZEAK STOP GIPUZKOA

Etxebizitza hutsak eta jabetza-eskubidea. Eskuineko mantrak desmuntatuz

Azpeitiko Udalak etxebizitza hutsei ezarritako Kanona abian jarri berritan –eta Euskadi osora zabal daitekeela jakinda–, etxebizitza horien jabeen eta eskuineko alderdien kexak irakurtzen eta entzuten hasiko gara. Jabetzarako Eskubidearen gaineko mantra horiek guztiak, behin eta berriz errepikatu arren, ez dira zuzenak.

Lehenengo mantra, interbentzionismoari aurre egiteko, liberalismoa defendatzea da. Interbentzionismoa defendatzen dute, mesede egiten dienean, baina protesta egiten dute, betebeharrak edo mugak ezartzen dizkietenean. Begira nolako eztabaida piztu zen aurreko hauteskundeetan etxebizitza erosteko dedukzio edo kenkariaren gainean. Ziur kenkari horien onuradun zuzenak direla interbentzionismoa kritikatzeko duten askok. Kenkariak eskaintzea ez al da neurri interbentzionista? Pertsona horiek, gainera, beti eskatzen dute erakundeen esku-hartzea, baina pizgarriak emateko, soilik. Une jakin batean, interbentzionismo mota oro defendatzen dut gizarteak eskatzen duena lortzeko eta,

orain, eskaera nagusia alokairu libreko eta izaera sozialeko etxebizitza-parke bat da prezio eskuragarrian, etxebizitza eskuratzeko beste aukerarik ez dutenez.

Bigarren mantra jabetzarako eskubide mugagabea argudiatzea da, beren etxebizitzarekin nahi dutena egiteko aukera ematen diena. Baita jenderik gabe mantentzea ere, justifikaziorik gabe. Euskadin, Euskal Etxebizitzaren Legearen 4. artikuluan jasotako Funtzio Sozialak baldintzatzen du jabetzarako eskubidea. Artikulu horren 2. atalak justifikaziorik gabeko etxebizitza hutsez dihardu. Legearen artikulua hori, Kanonaren ezarpena, etxebizitza nahitaez alokairuan jartzeko neurria eta justifikaziorik gabe bi urtetik gora hutsik daramaten etxebizitzaren espropiaziorako aukera... Neurri horien guztien errekurtsioa aurkeztu zen Konstituzio Auzitegiaren aurrean, eta auzitegi horrek neurri horien erabilera bermatu zuen. Beraz, jabetza eskubideak ez du babesten ez erabilera antisoziala, ez merkatuan eskaintzarik ezaren ondorioz prezioen igoeran eragitea. Justifikaziorik gabe milaka etxebizitza huts baitaude.

Hirugarrenik, okupen eta inkuokupen aurrean, jabeentzat babes juridikoa aldarrikatzen dute. Neu benetako arazoak zuzentzearen alde nago, baita ezertxo ere ordaindu gabe bizitzeko legezko zirrikietatik eta ilara judizialeatik onura ateratzen duten lotsagabeak lehenbailehen kanporatzearen alde ere. Baina, alde batetik, datuek ez dute bermatzen hedabide askok okupaziotzat (usurpazioa bizileku-bortxaketarekin nahastuz) edo inkuokupaziotzat (iruzurrezkoa behar gorriaren ondorioz ematen denarekin nahastuz) definitzen duten arazoa iradokitzen den tamainakoa denik. Bestalde, egoerak bereizi egin behar dira, eta ez da guztia modu berean epaitzearen akatsean erori behar.

Jabeek hiriburuak ez diren udalerrietan etxebizitza arruntak askoz prezio altuagoan alokatzen badituzte, ez al duzue uste, maizter horiek kaudimendunak balira, mailegu bat eskatu eta horrelako etxebizitza bat erosiko luketela? Kasu horietan, ziurrenik, espekulazio gordinaren arazoa dago, eta horrek alokairua ordaintzeko

ezintasuna areagotzen du, beste aukerarik ez dagoelako. Jabeek konpentsazio bat jaso behar dute –eta hala aurreikusten zuen Espainiako Kongresuko Omnibus lege ospetsuak– gerora sortutako kalteberatasuna duten familiak inplikaturik daudenean (alokairu batetik bestera ordaindu gabe doazen lotsagabeengandik bereizteko modua izango litzateke), baina arazo horiek prebenitzeko modurik onena alokairu-aseguru bat kontratatzea da, edo, are hobeto, etxebizitza Biziguneri lagatzea, eta horrela babestuta egongo dira okupazioen eta etxebizitzaren kalteen aurrean.

Laugarrenik, plataforma honek defendatzen du Kanona ezartzea porrota dela. Ez da lortu nahi den helburua, benetako helburua etxebizitza premiazko arazoak dauden tokira mugitzea baita: alokairu libre eta sozialera. Eta, horretarako, beharrezko pizgarriak erabiltzea defendatzen dugu; izan ere, kasu horretan, jabeek askatasuna dute etxebizitza nora bideratu aukeratzeko. Ez da xantaia bat, baizik eta, Kanona ezartzen badiete, jabeek aukera hori aukeratu dutelako da, alokairura bideratu beharrean.

Pizgarri-neurriei dagokienez, berriro diot, inplikaturako erakunde guztiek beharrezkoak diren pizgarriak martxan jartzea defendatzen dugu. Eta puntu honetara iritsita, badakigu berebiziko garrantzia izango duen atal bat izango dela etxebizitza asko ez direla mobilizatuko, bizitzeko moduan ez daudelako. Bizigune Rehabilitacion izeneko programa bat sortzea proposatu dugu, birgaitzeko premia duten etxebizitzei laguntzak aurreratzeko. Emandako laguntzaren pareko urte-kopurua lagako litzaioke etxebizitza Biziguneri, eta denbora horretan jabeek bakarrik jasoko lukete maizterren diru-sarreraren % 30. Ziur nago horrela milaka etxebizitza sartuko genituzkeela Bizigune programan. Espero dut nire iritziak eta informazioak lagunduko dizuela Kanonari eta haren helburuei buruzko iritzi informatua eratzeko, egiazkoak ez diren gauzak esan beharrean.

KENKARIEN ONURADUN DIRA INTERBENTZIONISMOA KRITIKATZEN DUTEN ASKOTXO

Elkartasun jaialdia Andoaingo Gaztetxean, hilaren 22an

Goizean hasita, egitarau oparoa aurkeztu dute antolatzaileek

Erredakzioa ANDOAIN

Egun osoko elkartasun ospakizuna iragarri dute Andoainean, datorren otsailaren 22rako. Goizean hasi eta ordu txikiak bitarte, ekitaldi ugari iragarri dituzte.

Kalejirak eta pailazoen emaldiak emango diote hasiera egunari. Arratsaldean, berriz, pintxo-potea eta hiru talde ezagunen kontzertua iragarri dute. Adin eta gustu guztiak aintzat hartutako ospakizuna da, beraz

Otsailak 22, larunbata Andoain

- 11:30** Triki-kalejira Zumea plaza-tatik Gaztetxera.
- 12:00** Porrotx eta Zapotxin pailazoak: Irri kanta koloretsua. Sarrerak salgai dardurde Ernaitzan, 5 eurotan.
- 18:00-20:00** Pintxo-potea.
- 19:00** Errifen zozketa.
- 22:00** Kontzertua: Gaizkiñe, Jotsetxu Piperrak eta Modus Operandi. Sarrerak salgai 12 eurotan. Ondoren, DJ Jotatxo.



Porrotx eta Zapotxin. KRONIKA

Artelan ziren horma-irudiak ezabatu dituzte

Andoingo Udalak alde zaharra eraberritzeko hainbat neurri hartu zituen iraganean, horien artean Kale Nagusiko etxabeetan bi jarduera artistiko burutzea. Berriki, eraikina goitik behera margotzerakoan, horma-irudi horiek ezabatu dituzte

Xabier Lasa ANDOAIN

Eraikinean bizi diren bizilagunen asmoa kanpoaldea biziberritzea izan da eta, bidean, desagertu egin dira artelantzat har daitezkeen horma-irudiak. Eraikina, zehazki, Andoingo Kale Nagusian dago, Karkaba inguruan, Correos-en eta Euskalduna Mendigoizale taldearen egoitzen parean. Artelanak ezabatu dituzte eta horren aurrean harrituta eta haserre agertu dira artelan horien bi egileak, hots, Eduardo Arreseygor eta Gartxot Arregi. Biek ere sentiberatasun falta nabaria salatu dute, ezabatu arte ez baitute erabakiaren berri izan. Inork ez die deus jakinarazi, eta mina sentitzen dute biek ere. "Horma-irudiak kentzeak eta egileekin izandako jokabideak argi eta garbi erakusten du kulturarekiko eta nortasun komunitarioaren aldeko ekimenekiko sentsibilitate falta, ezjakintasuna eta mespretxua", adierazi dio Aiurri astekariari Eduardo Arre-



Kaleberria eta Kale Nagusiaren arteko pasabidea. AIURRI

seygorrek. Gartxot Arregik, bere aldetik, auzitan jarri du erakunde publikoan diru eta bultzadarekin kalean egiten diren jarduera-artistikoei, denborarekin, jasotzen duten zaintza eskasa. Gutxira arte, horma-irudien pa-

sabidetzat har zitezkeen Andoingo alde zaharreko pasabidea. Egun, lanak amaituta eta iraganean zegoena burutik kendu ezinda, hustasuna besterik ez dute erakusten margotutako pareta berriek.

Zinemari gorazarre



Arreseygor, Oartzun eta Lazkano. AIURRI

2019ko udaberria Karkaba eta Correos-eko egoitzaren inguruan dauden etheen horma zuriak modu artistikoan margotzeari ekin zioten Eduardo Arreseygor, Marga Oartzun eta Juanan Lazkano herriko artegileek, Andoingo Udalaren eskaerari jarraiki.



Zinemaren unibertsoa margolan bilakatu zuten. AIURRI

Zinema Zazpigarren artea izan hizpide hormako artelan batean. iraganean, bertan, Iparragirre zinema egon zela gogora ekarriz. Artelanak, gonbitea luzatzen zion kale estu horretan pasaeran doan oinezkoari, zinemaren unibertsoan murgil zedin.



Eraikinaren atzealdea 2019ko udaberrian. AIURRI

Historia Aski ezagunak ziren aktore eta zuzendariak (Alfred Hitchcock, Mariyn Monroe, Pilar Rodriguez...), pertsonaiak (ET, Ameli, Charlot...) eta film jakin batzuen eszenak ("Leku bat munduan", "Txoriak"...) ikusi zitezkeen.

Etxeko egunerokotasuna, hiru eszenatan

Correos-en egoitza parean, hiru leiho irudikatzen zituzten artelanak ipini zituzten 2015eko irailean Alaitz Bikuñiak eta Gartxot Arregik. Gainera, objektu fisikoak (loreontziak eta loreak) itsatsi zizkieten leiho horiei. Artelanaren gaineko ideia eta prozesua azalduta dauka Arregik, ber webgunean. Jangela, logela eta komuna irudikatu zituen eta artista pozik zegoen emaitzarekin, bereziki, "esku-hartzearen bidez, horma 'irekitzea' lortu dugulako.

Lehen pareta traketsa zen, orain leku interesgarri bihurtu dugulakoan gaude". Txoko iluna zena argia eta bizia izatea lortu baituzuten.



2015ean, pareta artelan bilakatu zuten. AIURRI



Salestar ikastetxearen eraikina, 1967an hamarkadan ateratako argazkian. KUTXATEKA

Herri Gogoa, Urnietan abian jarritako diskoetxe klandestino

Asteburu honetan, Sarobe Arte Eszenikoen Gunean estreinatuko duten "OTS" ikuskizunak Herri Gogoa diskoetxea (1967-1981) du inspirazio-iturri. Zigilua euskal musika garaikidea ulertzeko giltzarri izan zen eta lehen grabazioak Urnietan egin zituzten

Xabier Lasa URNIETA

Herri Gogoa diskoetxeak 60ko hamarkadan abian jarri zen Euskal Kantagintza Berriko ahotsik ezagunen (Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Antton Valverde...) lehen diskoak grabatu eta plazaratu zituen. Bada, Urnietan egin ziren lehen grabazioak.

Patxi Zubizarreta idazleak berriki "Sakonean, itsasoa ikusten da. Miangolarraren uberan" liburuarekin azaldu digu diskoetxea zein testuinguru historikoan sortu zen; hain zuzen, 1967an, "zentsuraren eraginez legalki sekula existitu ez, eta artean, txalupa huts izan arren, 200 disko disonantetik gora itsa-

soratu" zituen diskoetxea. Pako Miangolarra Gorostiaga (Gernika, 1934, Donostia, 1995) euskal kulturaren filantropoa izan zenari egindako elkarrizketetan oinarritutako narrazioa egin zuen Zubizarretak, 2023an. Izan ere, bera izan baitzen Herri Gogoa diskoetxearen finantzatzaile eta sustatzaile nagusia.

Familia abertzalearen altzoan jaio zen. 1936ko gerran, Venezuelara ihes egin behar izan zuen etxekoekin. Han, inprimategi arrakastatsu bat sortu zuten. Pako Miangolarra Venezuelako erbestetik Ipar Euskal Herrira 60ko hamarkadaren hasiera etorri zen, eta bertan zenbait errefuxiatuekin harreman estua eduki zuen, Marc Legasse eta Federiko Krutwigekin, esate batera. Hain zuzen, azken horri hainbesteko zeresana eman zuen Vasconia (1962) liburu argitaratzen lagundu zion. Gutxira, Donostiako Gros auzoan jarri zen bizitzen. Frankismoaren eragin kaltegarriaren pean bizi zen Euskal Herria topatu zuen Miangolarrak; "kultur transmisioaren eta segidaren katebegiak kasik guztiz desagerraraztea" lortu zuen frankismoak ordurako. Nolanahi ere euskal kulturaren aldeko zenbait ekimen ari ziren burutzen, hala nola, zenbait ikastolen sorrera, irrati txiki (Segura, Loiola, Arrate...) emititzen, dantzari, txistulari eta abesbatzen lehaketak... Ingurumari horretan kokatu behar litzatekeela Euskal Kantagintza Berriaren abiatzea.

Euskal Kantagintza Berria

Musikariaren mugimendu aitzindari horren aita espiritualtzat jotzen den Nemesio Etxaniz apaiz euskaltzaleak 1951ean plazaratua zuen "Kantu-kantari" kantutegia, eta, geroztik, poliki-poliki, sustraitzen ari ziren euskal belau-naldi berrien artean beronek zekarren filosofia edo mezua, hots: "Mitiñak baiño askoz geiago egin dezakete euskerazko kantu egokiek noraezean dabilen gaztediari errizaleatasunak biotzean txertatzeko".

Liburu horren eraginez hein batean, Iparraldean, euskal kantagintza berriko zenbait ahotsak (Simun Haran, Robles-Arangiz anai-arrebak, Michel Labegerie, Maite Idirin, Mikel Laboak, Imanol...) egin zituzten lehen diskoak, oso modu xumean, etxean grabatuta-eta. Lan horiek, Hegoaldera, estraperloan ekartzen zituzten, "letxuga eta aspirina artean gordeak". Hegoaldean, Benito Lertxundik eta Xabier Gereñok Cinsa diskoetxean grabatu zituzten, eta bestalde Edigsa zigilu katalanarekin Mikel Laboak, Nova Cançó mugimenduko Maria del Mar Bonet,

Lluís Lach, Raimon eta abarrek harremanetan jarri eta gero. Garaitsu hartan, Donostiako Aurrera tabernan bildu ohi ziren sortu berria zuten Ez Dok Amairuko zenbait kide (Lertxundi, Laboa, Jose Angel Irigarai...) eta horiengana hurbiltzen zen Miangolarra bera, zera galdetuz: "Zerbait egin dezaket zuen alde?". Solasaldi haietako batean erabaki zuen Miangolarrak euskal zigilu propioa sortzea, euskal disko eta liburuak plazaratuko zituen, Herri Gogoa hain zuzen. Horretarako, Donostian bizi zen Iñaki Beobide Agirrezabalaga (1934-2024) zumaiarrari luzatu zion erronka, diskoetxea zuzendu zezan. Beobide, euskal kultur eragilea izan zen hamarkadetan; diskoetxeaz gain, besteak beste, atzerriko antzerkigileen obrak euskaratu eta taularatu zituen Jarrai antzerki talde aitzindariaren zuzendaria izan zen, "Ikuska" liburu saila sortu zuen, edota, ETBren sorreran parte hartu zuen.

Era horretan, ezerezetik abiatu, hainbat aparatua bereganatu behar izan zituzten; grabazio mahaia, instrumentuak, sintetizadorea, grabagailua...

Bestetik, Miangolarrak, Gros auzoko bere etxea grabazio-estudio gisa erabiltzeko prestatu zuen.

Urnietan, lehen grabazioak

Dena den, behin makinaria guttia eskuratuta, lehen grabazioak Urnietako Salestarren ikastetxean egin zituzten, 1967an, hango antzokian behin-behineko estudioa inprobisatu eta gero. Horretarako, Bartzelonan alokatutako tresneria erabili zuten, eta bertatik Jaume Gratacos Edigsa diskoetxeke teknikaria ekarri zuten.

Era horretan, Urnietako estudiotik Ez Dok Amairu kolektiboko partaide gehienak igaro ziren, banan-banan; Xabier Lete izan zen lehena, eta ondoren heldu ziren gainerakoak: Lourdes Iriondo Antton Valverde, Benito Lertxundi, Oskarbi, Artze eta Irigaray anaiak eta Mikel Laboa.

LEHEN GRABAZIOAK SALESTAR IKASTETXEKO ANTZOKIAN EGIN ZITUZTEN, 1967AN



Oiartzabalek Herri Gogoan diskoetxearen lehen grabazioetan parte hartu zuen. Eskuetan du Euskaros taldearen diskoa. AIURRI

Gutxira, Grosera eraman zuten grabaketa-estudioa, hura intsonorizatu ostean. Hori bai, Espainiako zentsurak diskoak editatzeko baimena ukatu zenez, lehen urteetan aipatu Edigsa diskoetxearekin kaleratu behar izan zituzten lehenbiziko diskoak, Edigsa-HG zigiluarekin. Oso modu klandestinoan funtzionatu zuten, ezen Groseko bizilagunek inoiz ez zutela jakin etxebizitza hartan diskoak grabatzen zituztenik. Garai ilun haietan Informazio eta Turismo Ministerioko buru zen Manuel Fraga ministro zena gogoan hartuta, hara zer zioen Beobidek: *“Nire gorpuaren gainetik ez bada, esaten zuten Fragak; baina guk gauzak egin, egiten genituen, ekin eta ekin”*. 1981era arteko ibilbidean, Herri Gogoan diskoetxeak 200 diskotik gorako kultur ondare preziatua utzi zuen. Guztien artean, nabarmentzekoak dira lehen aipatutako abeslari eta talde ezagunen diskoak, euskal kantu zahar herrikoiekin edo euskal musika klasikoarekin egindako bildumak, haurrentzako ipuinen grabazioak, herri musikaren moldaketa modernoekin gazteei begira osatutako Akelarre Sorta diskoa...

Oiartzabal eta Euskaros taldea

Joxe Mari Oiartzabal Beloki musikari andoaindarra 70eko hamarkadan makina bat plaza eta dantzalekutan gazteak dantzan

jarri zituen Euskaros musika taldeko kide (ahotsa, gitarrak eta tronpetak) izan zen. Bolada hartan, Herri Gogoan diskoa grabatu zuen taldeak, eta bere bi kidek, Joxean Mercero eta biek, zigiluarekin kolaboratu zuten denboraldi batean. Diskoetxearekin nola egin zuten harremana du hizpide Oiartzabalek. *“70eko hamarkadaren hasieran, soldaduskatik itzulia nintzen, eta Joxean Mercero, Eugenio Perez de Lazarragak, Calisto Areak eta lauok Euskaros taldea osatu genuen. Euskaraz abestutako musika zabaltzea zen gure asmoa, dantzalekuetan eta halako tokietan gaztelania edo ingelesa baitzen nagusi. Nemesio Etxaniz apaizarengana jo genuen laguntza eske, hark euskal abesti eta letrekin liburuak atera baitzituen, eta gure eskutara 1967ko Lur berri billa iritsi baitzen. Baimena eman zigun, argitaratu zuen guztia nahi bezala erabiltzeko”*.

Euskaros taldeak astean hiruzpalau emanaldi edukitzen zituen, dantzalekuetan edota ezkontzetan eta antzeko ospakizunetan. *“Egundoko arrakasta izaten genuen. Izan ere, jakina da euskal kantagileek jendetza erakartzen zutela eta euskal gogo eta sentimendu antifrankista pizten zutela. Baina Frantzia, Ingalaterra edo Ameriketatik zetozen haize moderno eraginpean*

edo, gazte jendeak erritmo bizi eta dantzagarriak ere nahi izaten zituen. Eta eskaera hori asetzeko orduan, nahiko aitzindariak izan ginen”.

Laukoteak berriz ere Etxanizengana jo zuen laster. *“Taldea promozionatzeko lau bat kanta grabatu nahiko genituzkeela aipatu orduko, Grosen omen zegoen diskoetxe batera bideratu gintuen”*. Era horretan, Pako Miangolarra filantropoa eta Iñaki Beobide soinu-teknikaria ezagutu zituzten, eta baita estudio klandestino ere. *“Han ez zegoen ez kartelik ez ezer. Lau garren etxebizitzan zegoen estudioa, eta Miangolarra bera hirugarrengoa bizi zen emaztearekin. Inoiz ez ziguten eskatu segurtasun neurriak hartzeko, baina han guztiak bazeukan misterio puntu bat. Miangolarrak berak etxean aparatu bat edukitzen zuen Donostiako kaleetan zebiltzan polizia elkarriketak sintonizatzen”*.

Grabazio-estudioa muntatzen ari ziren unean ezagutu zituzten Herri Gogoako bi bultzatzaileak, Oiartzabalek gogoan daukanez. *“Miangolarra erdalduna zen, eta entzuten genion nola esaten zuten, ‘yo os voy a traer a los músicos todos los aparatos que necesiteis para grabar en condiciones’*. Bere egitasmoa euskal abeslariak euskaraz diskoak grabatu zituzten behar ziren

bitarteko guztiak jartzea zela adierazten zigun. Lasterrera, garai hartan munduan ziurrenik modernoak ziren Moog sintetizadoreak ekarri zituen, eta baita, lau pistako mahaia, Hammond organo bat, isats-piano bat eta bateria oso bat”.

Euskarosen grabaketa Herri Gogoan

Euskaros taldeak lau abestiz osatutako diskoa grabatu zuen estudio hartan, 1972an. Agudo, abestietako batek (Dana polita udaran), lehen postua eskuratu zuen euskal musikagintzan egiten zen zerrendan. Bestalde, *“musika formazioa bageneukala ohartu ziren Herri Gogoan, eta Miangolarrak Mercero kontratatu zuen abeslarien eta taldeen grabazioetan konponketak-lanak egin zituzten eta instrumentuak sar zituzten. Egia esan, argi zegoen euskal musikariaren grabaketek bazutela premia, batez ere ahotsa eta gitarra baino zer edo zer gehiago eskatzen zutenek”*.

Euskal abeslari eta talde gehienek musikalki bazutela zer hobetua aitortzen du Oiartzabalek. *“Gehienek ahots ederrak zeuzkaten, doinuak eta letrak ere pareko, baina, musikari begira, apenas joaten ziren lau akordetik harago. Horrela, Mercero, arlo horretan bazela zer egina pentsatu, Michelingo lanpostua utzi, eta lanari heldu zion, urte betez. Ni laguntzaile eramaten ninduen, gitarra, tronpetak eta bateria sartu behar zirenetan. Beobide, euskaltzale eta eragile handia izateaz gain, gizon finaz tratuan, eta ondo moldatzen ginen harekin. Guztira, 12 bat diskotan (Oskarbi, Antton Valverde, Argoitia anaiak, Iñaki Arriaran...) hartu genuen parte”*.

Amerikarren soinua... zituen gogoko Miangolarrak, obsesio bihurtzeraino, Oiartzabalen esanetan. *“Behin, zenbait euskal doinu (Bat Bi Hiru Lau, Euskaldunak gara, Iruten ari nuzu, Pello Joxepe...) besapean hartu, eta Los Angelesera (AEB) abiatu zen. Han estudioko musikari profesionalekin egindako grabazioak ekarri zituen, Akelarre Sorta bilduma, alegia. Eta berehala Merceroi: ‘Quiero que grabes las cosas así’*. Dena esatera, hark nahi zuena ez zen bideragarria garai hartako Euskal Herrian. Batetik, ahotsek behar zutelako protagonismoa

eta ez hainbeste instrumentistek. Eta, bestetik, argi zegoen Las Angeleseko instrumentistak falta zirela gurean; gaur egun, posible litzateke hori, musika eskoletatik musika-heziketa izugarriarekin ateratzen baitira gazte asko”.

Urte bete aritu ziren Herri Gogoan, esan bezala. *“Oso nekagarria zen lan hura, eta, azkenean, Mercero kito esan zuen. Nik lehenago utzi nuen, ezinagatik baita ere; izan ere, Comaq lan-tegian ari nintzen, eta, gainera, Euskaros taldearekin makina bat emanaldi egiten genituen”*.

Herri Gogoan eta Salestarrak

Zer dela eta Herri Gogoan diskoetxea eta Urnietako salestarrak arteko konexioa? Ikastetxe horren fundatzaile zat jotzen den Juan Manuel Beobide Zendoiarengana (Azpeitia, 1900-Urnieta, 1987) jarri beharko genituzke begiak, horretarako. Izan ere, Iñaki Beobide Herri Gogoako bultzatzaileetako baten osaba baitzen. Hark erraztu zien bidea ilobari eta Miangolarrari grabazio estudioa antzokian bertan ipini zezaten, Grosekoa egokitu bitartean. Juan Manuel Beobide 1927an ordenatu zen salestar, eta gidaritzarako eta ekintzailetzarako aparteko dohainak agudo nabarmendu zitzaizkiolarik, Coruña eta Madrigo salestarrak eskolak zuzendu zituen. 1951ean Kongregazioak Donostiara bideratu zuen, Gipuzkoa eta inguruko herrialdeetan salestarrak eskolen irekitzeko bultzatzen; era horretan, salestarrak aldeko filantropoak izan zen Zarageta-Aristizabal familiaren etxean jarri zen bizitzen. Besteak beste, Kuartangon (Ara) 1955ean salestarrak apaiztegiaren sorrera gidatu zuen. 1957an, berriz, Urnietan apaizgaien ikastetxea ezartzeko lehenbiziko urratsak eman zituen, Arizmen-di baserriko lur sailak erosiz eta ongile berriak erakarrit egitas-mora. Azkenean, 1964an eman zioten hasiera hezkuntza-jarduerari, 10 irakasle eta 64 apaizgarekin. 1967an, Lanbide Eskola izateko baimena lortu zuen eskolak.

**JUAN MANUEL
BEOBIDE ZENDOIA
SALESIARRAK ERRAZTU
ZION BIDEA IÑAKI
BEOBIDE ILOBARI**



Iurre Aranburu eta Aiert Beobide, Sarobe Arte Eszenikoen Gunean. AIURRI

“Ez ginateke gauden tokian egongo, sortutako guztia sortu izan ez balitz”

IURRE ARANBURU ETA AIERT BEOBIDE HAATIK DANTZA KONPAINIA

“OTS” emanaldiaren aurrestreinaldia egingo du konpainiak Saroben, igandean, iluntzeko 19:00tan. Herri Gogoa Euskal Herriko lehen zigilu diskografikoa du oinarri obrak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Herri Gogoa diskoetxea abiapuntu, “OTS” ikuskizuna ondu du Haatik dantza konpainiak, pertsonala bezain kolektiboa den oroitzapena, dantzaren bidez, oholtzara eramateko. Gertutik ukitzen du obrak, gainera, Aiert Beobide ikuskizunaren zuzendaria zein dantzaria, haren aitarekin harreman zuzena baitu zigilu klandestinoak. Harekin

eta konpainiaren ekoizlearekin, Iurre Aranbururekin bildu da Aiurri, aurrestreinaldiaren bezperan, lanaren nondik norakoak ezagutzeko.

Binilo zahar batek atontzen du, besteak beste, ikuskizunaren azala, titulua, “OTS”. Horrek nolabait hainbat hamarkada atzera egiteko gonbitea luzatzen dio ikusleari.

Aiert Beobide: Gogora ekarri nahi dugu 60-70 hamarkadetan egon

zen kultur mugimendu euskaldun abangoardista, dantzaren bidez, gure aurrekoen eskutik jaso dugun transmisioa oholtza gainera eramateko. Herri Gogoa diskoetxea ez zen sekula legez tatu, zentsura zela eta. Hortaz, hamai-ka trikimailu egiten zituzten: Bartzelonako diskoetxe baten azpimarka moduan argitaratu behar izan zituzten lan asko eta sortu zuten bigarren diskoetxe

marka da “OTS”. Arrarora dirudi hitza bera “h” hizkia gabe ateratzea, baina, garai hartan Euskara Batuaren arauak ezarri gabe zeuden, oraindik.

Iurre Aranburu: Mundu analogikora ere jo du. Ukigarria da ikuskizuna, zerbait fisikoa, garai bateko diskoak bezala. 224 lan argitaratu zituen Herri Gogoa diskoetxeak eta, guk, zigilua mantenduta, 225. sorkuntza-lana egin dugu. Jada, sortuta zegoen logotipo batetik atera dugu “OTS” izenburuaren irudia. Bere horretan hartu dugu, mantendu, batetik, oso estetika polita duelako, baina, bestetik, esan bezala, biniloak testuinguru jakin batean kokatzen gaituelako, iraganean.

A.B.: Eresbilen, Euskal Musikaren Artxiboan, pieza guztiak ezagutzen izan gara, etxeko katalogoan batzuk falta baitziren. Artxiboko zerrenda bera hartuta, eromena da nola dauden katalogatuta. Ez zitzaie inporta hainbeste marka, argitalpena egitea baitzen garrantzitsuena. Diskoetxe frenetikoak izan zen, garai batzuetan, berrehun lanetik gora argitaratu baitzituzten urte gutxian. Guk uste genuen geure hamarkadan hasi zela, pixka bat, euskal musika berri-tzen, baina, ez, ez, sekulako bidea eginda zegoen lehenagotik ere. **“OTS”, hots. Letra mutua da “h” hizkia eta, zigiluak pairatutako zentsura dela eta, isiltasunari dantzatu omen diozue. Nola egiten da hori?**

I.A.: Jone San Martinek ez du, soilik, koreografo lana egin, gida espirituala ere izan da (barreak)! Bada, joera hori markatu zuen hasieratik, bere beharra da isiltasuna dantzatzeko. Musika-aurketan aritu ziren Manu Gaigne eta Aiert, Jone iritsi aurretik, bidea egiten hasteko asmoz. Denbora-lerroa irudikatu genuen, Jonerengana proposamen batekin iristeko. Aukeraturako piezak entzuten hasi eta esan zuen: “Markatuko ditut mugimendu batzuk eta musika horrek beste geruza bat hartuko du nik sortutako horretan guztian”. Lan handia egin du Manuk eta, oraindik, bidea egiten ari gara. Dantza eta musika ibilbide paraleloan doaz, sintonian. Horregatik ere bada isiltasun dantzatua.

A.B.: 70. hamarkadaren bueltan, musika entzuteko moduari begiratzen badiogu, biniloa martxan

ipintzen duzunean, isiltasunak ez dira isiltasun. Are gehiago, noiz dira isiltasunak isiltasun? Gizakia isiltasuna entzuteko gai izan al da noizbait? Belarriak tapatuta ere, gorputz barruko mugimendua entzuten da. Orduan, isiltasuna ere modu askotan ulertu daiteke. Horregatik biniloen zaratarekin, marmararekin jolasten dugu.

Zentsurara itzulita, garrasi egin nahi zuten beraiek. Gogoratzen dut nire amak aipatzen zidanean, dantza-saio batean, ikurrina atera ezin eta makila ateratzen zela, soilik, eta mundu guztia txaloka hasten zela, bagenekien zer zen, ez? Ikurrina debekatuko digute, baina ez hor egotea.

I.A.: Emanaldian, nork bere irakurketa egiten du, eta hori nahi dugu guk. Ez dugu istorio bakarra kontatzea bilatzen. Azken zatian, adibidez abesti bat osorik dantzatzen dute. Hor nahiko kontakizun uniforme sortu dezake publikoak, baina, gainerakoetan, ez. Bakoitzak bere interpretazioa egiten du, eta hori da bilatzen dena.

A.B.: Egongo da Lourdes Iriondo entzun eta nor den ez dakienik, eta bakarrik geldituko dena bere sonoritatearekin, hitzekin... Eta beste batek bidaia izugarria egingo du, abeslariarekin baduelako sortua, jada, iruditeria izugarria. Horrek egingo du bakoitzak ezberdin sentitzea emanaldia, ziur.

Euskal dantza tradizionala izan duzue inspirazio-iturri euskal kulturgintzari bide berriak zabaldu zizkion zigiluari buruz jarduteko. Zailtasun berezirik eman al dizue kutsu tradizionalako mugimenduen eta modernitatearen zekarren musika garaikidearen arteko nahasketa egiteak?

A.B.: Nire ustez, ez. Oso argi zeukan Jonek hori nola egin nahi zuen. Errespetuz egin du, balio handia emanez guk euskal dantzari moduan daukagun oinarriari. Zukua atera dio horri, garaikidetasun batera eramanez, formak aldatu eta espazioarekin jolasteko. Progesioak oso garbi ikusten dira, euskal dantzako pauso batetik nola, bat-batean, beste mugimendu batera doan dantzaria. Oso naturala da nahasketa, ez dute talka egiten bi hizkuntzek. Ikuskizunarekin egiten dugun laugarren egonaldia da hau; bada, ikustera etorri izan den jendeak dio ez dakiela non

hasi eta amaitzen den euskal dantza, oso ondo ekarria baitago. Euskal kulturaren garaikidetasuna aldarrikatu nahi zuen Herri Gogoak. Guk ere hori egiten dugu: erabat garaikidea da ikuskizuna, transmisio bidez jaso ditugun erreferentzia guztiekin.

I.A.: Erronka hori izan dugu gure lan guztietan: garaikidetasunerantz jo nahi dugu, garena galdu gabe. Adierazpen-bidea zabaldu egiten du dantza garaikideak eta Jonek asko lagundu digu horretan, lortu duelako tradizioaren eta garaikidearen arteko tartea lausotzen. Eta posible izan da konpainiak berak urte hauetan guztietan egin duen bideagatik.

A.B.: Bai, duela hamar urte, ezinezkoa litzateke ikuskizuna gauzatzea. Orain da momentua. Akaso, oinarri tradizional handiena duen emanaldia da, baina, era berean da sortu dugun ikuskizun garaikideena. Ez naiz, soilik, mugimenduaz ari, kontzeptua bera beste toki batean jarri dugu. Guztiok izan ditugu zalantzak mugimenduen joan-etorrietan, baina organikoa da, orain. Gauzak gertatzen, sortzen utzi du Jonek, eta hortik abiatu du dena.

Era berean, egiten al diozue keinurik garai hartan modan zegoen dantza-estiloari?

A.B.: Nik uste dut, nahita, ezetz, baina, nahi gabe, musikak eraman gaituela leku horretara. Melodiek eragina dute, ez baita gauza bera soul-jazz euskaldun bat entzun edo Maurizia entzun... Garai haietan, berrikuntza handiak eman ziren musikan, tresnetan, erritmoetan... Bai, nik uste dut eramaten gaituela, behar bada, garai haietako dantza-leku batean mugitzen zen modura.

I.A.: Sonoritategia berak ere bai, askotariko tokitan grabatutako musikak entzuten direlako ikuskizuneari. Nahasketa hori ere badago eta eragina dauka. Megafonoen soinua ere horregatik ekarri nahi izan dugu, "zarata" bilatzeko.

A.B.: Egiatzotasuna bilatu dugu, soinu gordinean. Musika-lana izugarria izan da. Batetik, aukeraketa, eta, bestetik, entzuteko moduak. Atmosfera berezia sortzen da obran, lau lekutatik, gauza desberdinak entzuten egongo gara, batzuetan.

Hortik ere soinu-bandaren collage-a, ezta? Ez, soilik abestien aukeraketan, baizik eta horiek erreproduzi-



OTS dantza ikuskizuneko pasartea. Igande honetan egingo dute aurrestreinaldia Urnietan. HAATIK

tzeko bideetan ere elementu asko erabili dituzue.

A.B.: Emanaldietan, zuzenean egongo da Manu musika ipintzen. Emanaldi bakoitza bakarra izango da, freskoa eta egiazkoa. Antzokitik antzokira, aldatu egingo da ikuskizuna.

Bide horretan, ikus-entzulea tes-tuinguratzen lagunduko du eszenaratzek.

I.A.: Musikan dagoena bezain abaniko zabala dago disko-azaletan. Jende ezagunak egiten zituen: Oteiza, Zumeta, Basterretxea, Ameztoti... Gaur egun, modernoak izaten jarraitzen dute garai bateko biniloen azal askok. Mamia mantentzen da; onak diren gauzek denboran irauten dute. Horrela, horietan oinarritu gara, besteak beste, Martin Romero moduan ezagutzen den artistaren lanean. Badu oso kolore primarioekin egindako azal bat: gorria, urdina, beltza eta grisa, batez ere. Ikuskizunaren estetikan eragina izan du horrek. Kolore horietan eta beste azal batzuen irudietan osatu dugu eszenaratzea, Ikerne Gimenezen diseinuaren eskutik: jantziek tonu urdina dute, lurra gorria da, megafonoak grisak dira, azpiegitura gorri batean ipinita...

Ikuskizunaren oinarria etxean topatu duzu, Aiert, hain justu ere, zure aitari, Iñaki Beobideri zor zaio, hein batean, Herri Gogoa zigiluak egindako lan eskerga. Nola gorpuztu duzu hori?

A.B.: Dantzatzen. Azken emanaldietan, zuzendaritzan aritu naiz,

baina niretzat emanaldi sentibera izango zela ikusi nuen, hasieratik. Ilusio handiarekin hartu nuen, onartuta, jada, ez ditudala 30 urte. Dantzatu behar nuela esan zidan Jonek, emanaldiarentzat ni barruan egotea oso inportantea zela. Era berean, bere kanpo begirada geneukan. Plazera izaten ari da prozesua, garai hartan nire gurasoek egindakoaz asko ikasten ari bainaiz. Pentsa, sei seme-alabetan gazteena naiz, gutxiene bizi izan duena. Etxean, bai, ezagutu nituen diskoetxeko bulegoa, diskoak, ipuinak, liburuak... Horretara itzultzeko unea zen. Nire anai-arrebek biniloak azaletan sartzen zituzten, Durangoko Azokara joaten ziren, amak aipatu bezala, askotan, diskoak ipurdi azpian ezkutatuta igarotzen zuten muga autoan... Nire aita bazen horren guztiaren buru, izan ere, azken finean, Herri Gogoa sortu zen, Ez Dok Amairuren behar batzuei erantzuteko. Bada, lehen diskoak Urnietan grabatu ziren, Salesarretan, Herrialde Katalanetik ekarritako musika-ekipoarekin.

Nire aitak ezin izan zuen erregratu Herri Gogoa, baina OTS marka nire amaren izenean dago, editorea bera zen, eta momentua zela sentitzen nuen. Nire behar pertsonala behar kolektibo bihurtu daitekeela uste dut.

Nolakoa irudikatu behar duzu zure haurtzaroko etxea, kultur faktoria baten modukoa?

A.B.: Denetarik izan da nire etxea. Baina, badakizu zer gertatzen den? Momentu batean, balioa, nolabait, galdu zutela, lana zelako eta gure egunerokoaren parte zelako. Dena dela, oso gauza politak daude gordeta.

I.U.: Aiarten etxean sartzea zen, entziklopediak, sari pila, diskoak, argazki-kamerak, pelikulak... Kulturaz betetako etxea, bai.

A.B.: Irratsaioak grabatzen ziren nire etxean eta postaz bidaltzen zituzten irratietara. Ekintzaileak ziren eta nire etxea momentu batean epizentro bihurtu zen, baina, beno, beste askorena bezala, ziurrenik. Joan-etorrian jende asko igaro da bertatik, harreman handia zuen-eta aitak Ez Dok Amairuko kideekin.

Bada, gertutik ezagutzen duzun zigiluak dantzari-jardunean ipini zaitu, aspaldiko partez. Zer moduz uztartu duzu oholtzan gorputza jarri behar izatea ikuskizunaren zuzendaritzarekin?

A.B.: Dantzatu gabe igarotako denboraz gain, kontuan hartu behar da nire gorputzak duen denbora. Fisikoki, oso gaizki eman nuen oholtzaz: emanaldiaren aurretik, dantzariak zituzten urduritasunak sentitzen nituen, baina energia hori pilatuta, askatu gabe etxeraten nintzen, buruko minekin, azaleko arazoekin... Egun, lasaiago bizi dut hori guztia, baina berriro aurkitu dut lekua dantzan eta oso gustura ari naiz. Opari polita izan da, eta, gainera, jolasteko askatasun handia dau-

kagu, eta hor adinak, esperientziak, nire alde jotzen du.

Urnietan eman zituen lehen pausuak Herri Gogoa zigiluak, eta, zuen kasuan ere herri berean ikusiko du argia "OTS" ikuskizunak, Saroben. Esanahi berezia hartzen du ia ohar-kabea igarotzen den xehetasun horrek.

A.B.: Ez dakit kasualitatea edo kausalitatea izan den. Auskalo, zergatik, baina, artearekin eta kulturarekin, irla berezia bihurtzen da Urnieta. Herri txikietan, gainera, gauzak askoz errazagoak dira: batek uzten zien antzokia hiru egunez diskoa grabatzeko eta guk, gaur egun, ikuskizunak sortzeko fabrika daukagu Saroben. Gure bizipen on eta gogor askoren konplize izan dira Sarobeko hormak. Gauza asko esan nahi du Urnietara etortzeak guretzat; bai niretzat, eta bai, garai batean, nire amarentzat, aitarentzat, Urnietak badu zer-bait.

I.A.: Urnietak, Sarobek eta etxe honetako langileek. Ez da erraza topatzea, beste toki batzuetan, hemen sentitzen dugun askatasuna. Eskari handia dago, gauza asko sortzen ditu jendeak. Horrelako espazio gehiago behar dira, ezinbestekoak dira artistentzat. Hemen, Saroben, konfiantza handia ipintzen da bertatik igarotzen diren sortzaileengan, eta eskertzekoa da hori.

Zein toki dute gurean, egun, euskal kantugintza modernoaren aitzindari izan ziren doinuek?

I.A.: Kultur ondare inportantea daukagu. Ez ginateke gauden tokian egongo sortutako guztia sortu izan ez balitz. Horri ere aitortza egiten diogu emanaldian.

A.B.: Askok aldatu da musika egiteko modua, baina baita hori entzuteko era ere. Joan-etorriak egiten ditugu, aurreraka zein atzeraka eta hori da, pixka bat, berritzearen araua. Ertzetik ertzera, horrelakoxea da sortzailearen bidaia.

Aurre estreinaldiaren ondoren, zein ibilbide egingo du obrak datozen hilabeteetan?

A.B.: Martxoaren 8an izango da estreinaldia, Gazteszenan, Donostian. Ilusioa egiten dit, areto horrek baduelako dantzarekin, garaikidetasunarekin eta gazte izaerarekin harreman berezia. Leku polita da lana aurkezteko. Ondoren, Sopelan, Bilboko Loraldian, Donostiako DFerian, Andoainen, Tolosan... Batetik bestera ibiliko gara.

Alba Cabrera Jauregi DONOSTIA

Hodeiak zulatzen dituzten mendi-tontorretan gora eta behera ibiltzea du gustuko Uxue Loizu (Uhartte, 1995) alpinistak. Hala, hiru urteko zikloari amaiera eman berri dio FEDME Espainiako Federazioaren Alpinismo-ko Emakumeen Taldean. Bertan, teknifikazioa egiteko aukera eduki du nafarrak, beste zenbait kiderekin batera: horien artean, arroken arteko konplize handi zuen eskalatazaileak Amaia Agirre Gonzalez urnietarra, orain bi urteko urtarrilean Patagoniako Fitz Roy mendian zendua. “Abriendo camino” proiektuaren eskutik, Jordanian nahiz Saudi Arabian izan ziren elkarrekin FEDMEko kideak, 2022an. Urtebete beranduago (Agirre gabe, jada), Groenlandiara egin zuten bigarren jauzia, eta, azken bidaiari, Nepalera jo zuten, 2024an, formakuntzari amaiera emateko. Zirkulu polar artikora egindako espedizioan begirada ipinita, hitzaldia eman zuen Loizuk, urtarrilaren 30ean Donostiako Okendo kultur etxean, eraikin berean zegoen “HARRI, ORRI, ARKATZ” erakusketarekin lotura eginda.

Desertuko sugandilak

Espainiako goi-mendiko lehen emakumezko gida da Miriam Marco eta haren eskutik iritsi zitzaizen Loizuri eta taldekideei “Abriendo camino” egitasmoan parte hartzeko aukera. Hizlariak azaldu bezala, bi xede izan ditu proiektuak: batetik, kirol-jarduerari dagokionez, urtero, urruneko toki batera espedizioa egitea, bertan eskalada- eta alpinismo-bide berriak irekitzeko. Bestetik, helburu pedagogikoari erantzuteko, makina bat eskolatan hitzaldiak eman dituztela aipatu zuen protagonistak, bost urteko umeekin hasi eta batxilergoko ikasleetara bitarte, “alor honetan, belaunaldi gazteek guk izan ez genituen emakumezko erreferenteak izan ditzaitez”.

Hari horri tiraka, garrantzia ematen dio Loizuk hiru bidaien arteko alderaketak egiteari, nolabait, “garapena” ikusten baitu, batetik besterako saltoetan. Aipatu bezala, basamortura egin zuten bidaiari, 2022an, Jordaniako eta Saudi Arabiako hareharrira dastatzeko. “Bidaiaren logistika bera baino, korapilatsua izan zen herrialdera sartzea”,

Groenlandiako zirrikituetan, Amaia Agirre Gonzalez gogoan

Eskaladako zortzi bide berri ireki zituen FEDMEko alpinismo-ko emakumezkoen taldeak 2023ko abuztuan, “Abriendo camino” proiektuarekin Groenlandiara egindako espedizioan. Abenturari buruzko hitzaldia eman du, berriki, Donostian, bertako kide izan den Uxue Loizuk



Jendetza bildu zen Uxue Loizu alpinistaren hitzaldian. AJURRI

ekarri zuen gogora nafarrak mintzaldian, “hasieran, ez ziguten pasatzen utzi, eskalada-bideak irekitzera gindoazen emakumezko taldea baikinen”. 4x4 ibilgailuekin batetik bestera mugituta, kanpamentu nagusia muntatu eta hiruzpalau egun ematen zizutzen inguruko harkaitzetan, egun bakarreko jardunean, 300 metro inguruko paretak, sugandilen pareko, igotzeko zein jais-teko.

Arrakala hotzetan, gora

Groenlandiako bidaiari “pauso bat harago” joan zirela uste du Loizuk, “logistika konplexuagoa” eskatzen baitzuen bidaiari: “Hasiera batean, belaontzi bat izan behar zen gure oinarritzko kanpamentua, baina, hilabete falta zenean-edo, hernia bat zuela esan zigun bertako kapitainak”. Hortaz, aukera baztertu behar izan bazuten ere, ez zuten helmuga aldatu nahi izan. Hala, abenturari erronka are potoloagoa ipintze aldera, hilabete egonaldia modu autonomoan igaroko zutela adostu zuten Loizuk eta bere taldeak, janariaren kudeaketa propioarekin, ia inkomunikatuta eta toki batetik bestera mugitzeko aukera murriztekin: “Ingurune basatia zen, 1.000 metroko altuera duten granitozko paretaz inguratuta eta inork zapaldu ez dituen glaziarrek zeharkatu behar genituen horietara iristeko”.

Esan eta egin. Madrildik abiatu ziren Islandiara, hegazkinez, bertatik, Groenlandiako Kulusuk herrixkara abionetaz joateko. Koloretako etxez osatuta dago uhartte erraldoiaren ekialdean kokatutako herria, eta ez zuten errepedierik ikusi, izan ere, Loizuk adierazi moduan, elur-motorrekin mugitu ohi dira neguan, guztia izoztuta dagoenean, baita txakurrek bultzatutako lerekin ere. Aldiz, uda-sasoia iritsita, txalupa izaten da gehien erabiltzen duten garraiobidea.

Herrixkan lur hartu bezala, bi errifle eskuratu behar izan zituztela kontatu zuen Loizuk, hartzen aurkako protokoloa dela eta: “Bizilagun batek esan zigun soinean generaman eskopetak ez ziola hartzari kilimarik ere egingo”. Hori horrela, bagajea prest, txalupa batera igo eta hantxe abiatu ziren sei orduko bidaiari, hilabetez, beren etxe izango zen Mytic Circus-era ailegatzeko asmoz. Iritsi aurretik, taldean ezjakintasuna zela nagusi nabarmendu zuen alpinistak Okendoko hitzorduan, “desizozte-sasoia baita uda eta iceberg-ez betetzen da kosta”. Eraikin baten tamainako izotz-pusken ondotik ibili ziren, arreta handiz, horien mugimenduek sortzen zituzten olatuak saihesteko. Oztopoak oztopo, eta, nekeak neke, iristea lortu zuten, beren hilabetezko abenturari ekiteko irrikaz.

Oinarritzko kanpamentua egitea izan zen iritsi orduko lehen zeregina. Paretan ondoan eraiki zuten, baina glaziarretik kanpo, “hotza saihesteko”. Horretan ere hartzen erasoan aurkako protokoloa eduki behar izan zuten gogoan: lehenik, komuna; bigarrenik, jakien txokoa; eta, azkenik, lo egiteko kanpin-dendak. Hiru gune horiek, beren artean, 100 metroko tartea utzita ipini behar zituzten. Behin kokatuta, taldeko zereginak zerrendatu eta banatu zituzten kideen artean; Loizuri, esaterako, konponketek eta jakiez arduratzea egokitu zitzaion.

Granito zaharreko pitzaduretan

Jada, tokiari neurria hartuta, inguruko tontor garaiak errepartzeari ekin zioten. Nondik hasi, baina? *Big wall* estiloen eskalatu nahi zutela aitortu zuen nafarrak hitzaldian, baina gehiegizko izango zelakoan, “beste fiordo batzuetara” jotzea eraba-

ki zuten, luzera laburragoa zuten paretan bila, *packraft*-ak (kayak puzgarriak) erabilia: “Lehenik, iparralde aldera, eta, ondoren, hegoalderantz”.

Lauzpabost egunetarako beharrezko materiala, ura eta jakiak eramaten zituzten, soinean, paretak igotzen hasi aurretik, beste kanpamendu bat egiteko. “Prismatikoak ahaztu zitzaizkigunez, erriflearen mira erabiltzen genuen eskalatu nahi genituen paretak eta pitzadurak ikusteko”, aitortu zuen Loizuk entzuleen aurrean: “Hasieran, eguneko 24 ordutan geneukan eguzkia. Erokeria zen hori geure buruarentzat, ez baikenekien eskalatzeko ordua ote zen, lo egitekoa, bazkaltzekoa...”. Egun bakarreko irteerak egiten zituzten. Igo eta jaitsi, gelditu gabe, alpinistak azaldu bezala, “20 ordu, 24... Beharrezkoa zena”. Ostera, nekez ahaztuko ditu protagonistak, gailurretik ikusitako parajeak: “Izugarria zen paisaia, izugarria, glaziarren artetik ageri ziren tontorrek ikustea”.

Nahiz eta hitzaldian, soilik, pare bat aipatu, guztira, zortzi bide berri egin zituzten espedizioan. Horrela, taldeko bigarren irteeran ireki zuen Nafarroako alpinistak bere lehen bidea: Fumantxus (400 m, 7a), Hidden Tower-aren hegoaldeko aurpegiaren, Maialen Rojorekin eta Ruben Sanmartinekin batera. Harriari dagokionez, “ezustekoa” eraman zutela aitortu zuen hizlariak: “Granito sendoa izatea espero genuen, Chamonix-en dagoenaren antzerakoa. Baina, gure harridurarako, harri zaharrenekin egin genuen topo, ia, harearriaren tankerakoa zen”.

Mila metroko hormak


Egunak joan egunak etorri, denborak aurrera egiten zuela ikusita, oinarrizko kanpamendura itzultzea erabaki zuen taldeak. Prest ziren, jada, abenturaren helburua betetzeko: Mytic Circus-eko dorre altuenak eskalatu nahi zituen taldeak, big wall estiluan, mila metroko igoera egiteko asmoz. Horretarako, hiru kidez osatutako bi taldetan banatu ziren. “Hiruzpalau egun eman genituen zintzilik, hamaikan lo egiten”, oroitarazi zuen Loizuk. Ondo baino hobeto gogoratzen ditu, oraindik, paretan gora igo beharreko 70 kiloko petateak: “Pitzadurak bilatuz egiten genuen igoera. Ez zirenez



FEMDEko alpinistak Groenlandian. JUANMI PONCE/FEDME



Uxue Loizu Fathers Tower-eko paretetan. JUANMI PONCE/FEDME



Uxue Loizuk berak egindako ilustrazioak. AIURRI

arrakala perfektuak, eskura genituen baliabideak erabili behar izan genituen goraino igotzeko”.

Loizuk zehaztu bezala, lehengo taldeak bide berria ireki zuen, nagusiki, eskalada librean, Fathers Tower gailurrera bidean,

La Jubi (600 m, 7a): “Bide hori Amari eskaini genion, taldeko lehen urtean, mendian bizia galdu zuen gure kideetako bati. Haren omenezkoak dira irekitzen ditugun bide gehien izenak”. Gauzak horrela, lehen hirukoteari lekukoa hartu eta paretak

luzera gora igo zen Loizu, beste bi kideekin batera, aurretik, jada, zabaldua zeuden bideak erabilia (La Jubi, tardean). Hitzik gabe utzi omen zuen hirukotea, mila metroko eskalada egin ondoren, gailurretik ikusten zen parajeak: “Izugarriak ziren bistak”.

Atsedeen egunak

Guztia ez zen eskalada izan, ordea, paretetatik zintzilikatzea bezain garrantzitsua baitzen taldekideentzat atsedeen hartzea. Zer egin, baina, Groenlandiako inguru galdutan? “Eskalaturako bideak marrazten ematen genituen egunak”, ekarri zuen gogora goi mailako kirolariak hitzaldian, “bidaia-koadernoan egin nuen”.

Egiari zor, eta umore puntu batekin, gosea pasa zutela ere aitortu zuen hitzartzean protagonistak, ez baitzuten “ondo egin kalkulua”. Hortaz, inguruko ahabiak jaten eta eperren bat edo beste ehizatzen ematen zituzten atsedeen egunak, inguruko haitzetan *boulder* bideak ireki zein auto erreskate teknikak errepasatzearekin batera. Hari horri tiraka, Loizuren hitzetan, “arriskua” du tamaina horretako espedizioa egiteak, “eta, gainera, abisatu ziguten, istripuren bat izanez gero, Islandiatik, soilik, etor zitekeela helikopteroa. Dena dela, harri erorikoren bat edo beste kenduta, ez omen zuten aparteko ezustekorik izan.

Nagusiki, egun eguzkitsu lasaiak eduki arren, behe-lainoak hartu zuen harana espedizioaren azken egunetan. Lauzpabost

egun lehenago jaso zituztela du gogoan Loizuk, iparraldeko haize-boladak baitzetotzen, 150 kilometro ordukoak: “Ez geneukan txalupa itzarotea baino egiteko hoberik. Satelite bidezko telefonotik jaso genuen abisua, gure bila zetetzela jakinarazteko”. Horrela, etxerantz jo aurretik, Kulusuk herrian geldialdia egin zuten, berriro, bertako bizimodu apur bat ezagutu eta, abentura biribiltzeko.

Nolanahi ere, esperientzia ez zen berriro Euskal Herrira itzulearekin batera amaitu. Bidaia-ri zuku handiagoo atera nahian, bi ikerketari ekarpena egin zien beren espedizioak: batetik, bertako glaziarrei argazkiak atera behar izan zizkieten, azken urtetako atzera-egitea aztertzen ari baita euskal glaziologo bat. Bestetik, Ana Carceller medikuak eskuartearen duen azterketa baten parte izan ziren Loizu eta haren taldekideak. Baldintza gogorren ondorioz sortutako estresak obulazioan eraginik ba ote duen ikusi nahi zuen ikerleak: “Hilabete osoan ez zuen gutako inork eduki hilekoa”, azaldu zuen nafarrak, “itzuli eta pare bat hilabetera-edo berreskuratu genuen. Emaitzetan ikusi zen, baietz, eragina duela”.

Himalaiako zeru ertzean

Zerua eskuekin ukitzetik gertu izan ziren, FEDME-ko kideak Nepalen, iaz, hiru urteko formakuntzaren azken sasoian. Bidaia horrek eman zion amaiera “Abriendo camino”-ri: desertua zapaldu zuten, lehenik; hilabetez era autonomoan izan ziren Groenlandian, tenperatura hotzetan; eta, azkenik, inor ohituta ez zen altitudetan izan ziren munduko mendi-lerrorik garaienean.

“Eta, orain, zer?”, galdutu zion entzule batek, hitzaldiaren amaieran, protagonistari. Azkar bezain argi erantzun zion goi mailako kirolariak zalantzari: “Lasaitasuna. Elkarrekin eskalatzen jarraituko dugu. Baditugu zenbait toki buruan, Peru, Kirgizistan...Elkartu, dirua aurreztu eta joan”.



Espedizioaren dokumentala

Eskaneatu QR kodea, “Abriendo camino” proiektuaren dokumentala ikusteko.



Aurreko asteburuko partida, Allurralde kiroldegian. AIURRI

Barakaldo, aurkari zaila Euskal Ligan

ESKUBALOIA Gipuzkoako Ligan eta iguera-fasean onenen pare ibili ostean, Barakaldo taldearen aurkako partidarekin ekin zioten Euskal Ligari. Alde handia dago, egun, bi aldeen artean. Alde handiz irabazi zuten bizkaitarrek (28-43)

Erredakzioa ANDOAIN

Euskadiko onenen artean lehiatzeko maila erakusten ari dira Leizaran Javier Zeramikak taldeko gazteak, denboraldi honetan. Senior mailako mutilen eta nesken ibilbide beretsua darraite, beraz, jubencil mailako mutilek. Denboraldi honetan Gipuzkoako Ligan eta iguera-fasean meritu handiko partidak egin dituzte.

SASKIBALOIA

EUSKAL LIGA:	
LEIZARAN JAVIER ZERAMIKAK	28
BARAKALDO	43
URDANETA	26
ZARAUZ	37

ASTEBURUAN

EUSKAL LIGA:	
ZARAUZ-LEIZARAN JAVIER ZERAMIKAK	
Larunbata, 15. 13:00. Aritzbatalde	

Aurreko asteburuan Euskal Ligari ekin zioten. Baina aurrean zuten aurkari maila handikoa zen. Barakaldok ez zien aukerarik eman eta alde handiz irabazi zuten Andoainen jokaturako partidari (28-43).

Ligaxka honetan ari diren beste bi taldeak Urdaneta eta Zarautz dira eta euren arteko partidari zarautarrak gailendu

Larunbat eguerdian, Zarautzen



Barakaldorekin jokatu ostean, Euskal Ligan Zarautzen aurka ariko dira.

Aritzbatalde Eguerdiko 13:00tan hasita, Leizaran Javier Zeramikak Zarautz taldearen aurkako partida jokatu du. Haiek aurreko partida irabazi zuten, Urdanetaren aurka.



Andoaindarrek oso aurkari zaila izan zuten aurrean.

Allurralde Barakaldo taldearen bisitaldia jaso zuten aurreko asteburuan eta partida osoan aurretik joan ziren bizkaitarrak. Oso aurkari zaila izan zuten aurrean.

ziren. Hain zuzen ere, larunbat honetan andoaindarrek Aritzbatalderen kantxan jokatu

dute Zarautzen aurka. Eguerdiko 12:00tan iragarrita dago partida.

Jardunaldi ona Urnieta KE-ko talde gehienentzat

ESKUBALOIA Urnieta Artola Harategia lehen taldearen garaipen garrantzitsua Arrasaten (27-30)

Erredakzioa URNIETA

Lurreldeko 1. mailako taldea orain 4. postuan da, Euskadiko Txapelketarako iguera faserako txartela ematen duten postuetan. Bigarren mailan ere, garaipena: Egia-Urnieta Guria (23-31).

Bide ona hartuta

Fase berrian, bigarren garaipena Urnieta Iñaki Mecanizados kadeteentzat izan zen, Otezuri Pulpo garaituta (38-25). Eta infantil mailan, denboraldiko lehen garaipena Urnieta Ñam Restau-

rante taldeak erdietsi zuen. Tolosa C.F Eskubaloia Bat taldearen aurka lortu zuten. Garapen oso ona izaten ari dira denboraldiak aurrera joan ahala.

ESKUBALOIA

LURRELDEKO 1. MAILA, 15. jardunaldia:	
ARRASATE - UKE	27-30

SAILKAPENA

1 HONDARRIBIA BIDASOA	22 p.
2 EIBAR B	17 p.
3 URNIETA ARTOLA	14 p.
4 URNIETA ARTOLA	14 p.



Urnieta Iñaki Mecanizados taldeko Janire Pacheco Ubillos. UKE



Ansa eta Azpiroz oraina eta etorkizuna dira erremontean. ORIAMENDI

Hirugarren Masters txapela jarraian jantzi du Ansak

ERREMONTEA Sakean oinarritu zuen garaipena urnietarrak, Azpirozen aurkako finalean

Erredakzioa URNIETA

Urnietarrak ez zion aukerarik eman Azpirozi, sake bikainak eginez. Finalean, kolpe bakoitzean, erakustaldi aparta eman zuen. Hori horrela, eskarmentua pilatzen ari da Ansa eta dagoeneko onenen artean dagoela argi geratu da: Banakako bi txapel eta Masterseko hiru ditu. Partida tanta ikusgarriarekin hasi zen eta 2-2koa eta gero Ansak aldea atera zuen, 8-0eko partziala eginez. Aldea hamar tantokoa izatera iritsi zen, 16-

6, baina Azpirozek ez zuen amore ematen eta gerturatzan ahalegindu zen. Halere, Ansak hamaika tanto egin zituen saketik eta horrela zaila da galtzea.

Hamabosgarren edizioaren ondoren, Urriza da palmaresaren liderra, sei titulurekin (2013, 2014, 2017, 2018, 2019 eta 2021). Ansa du atzetik, hirurekin (2023, 2024 eta 2025); Ezkurra II (2011, 2012), Uterga (2015, 2016) eta Barrenetxea IV (2020, 2022) birekin daude.



Setien kapitaina. AIURRI

FUTBOLA Saikapeneko lehena eta azkena, Ubitarte zelaian

Larunbat honetan Gorengo mailako partida jokatu da Ubitarte zelaian. Euskalduna lidergotzan da eta lehen postuari eusteko garaipena ezinbestekoa du. Are gehiago, azken bi neurketetan berdinketa eta porrota ezagutu ostean. Hasiera batean, datorren larunbateko partidaren hiru puntuak lor daitezke saikapenaren azken postuan dagoen Billabona taldea hurbilduko baita Andoainera. Larunbat honetan da partida, arratsaldeko 16:00tan hasita. Saikapenari begira, Euskaldunak 37 puntu ditu eta, 35na, Santo Tomas Lizeoak eta Rotetak.



Urnietako C-ko taldekideak. AIURRI

FUTBOLA Igoera faseko hirugarren partida, Urnietan

Jubenil mailako Urnietako C taldea igoera faseko ligaxka jokatzen ari da. Larunbat honetan hirugarren partida jokatu dute Urnietan, Aretxabaleta liderraren aurka. 15:45tan hasiko da partida.



Mouaffaqek aurkaria menpean hartu zueneko une batean. ABRAHAM DOMINGUEZ

Borroka estuaren ondoren, puntutara galdu zuen debutean

K-1 Riad Mouaffaq kickboxer andoaindarrak debuta egin zuen aurreko larunbatean, Tafallan

Erredakzioa ANDOAIN

Puntutara galdu egin zuen Alex Torreguitart funestarraren aurka, baina oso sentsazio onekin itzuli zen etxera, Aiurriri aitortu dioenez: "Esango nuke ni nagusi izan nintzela lehen borrokaldian, eta bera hirugarrean;

bigarrean nahiko berdintsu aritu ginen borrokan. Azkenean, epaimahaien ustez, bera izan zen garaile, puntutara. Sentsazio onekin bukatu nuen borrokaldia, eta uste dut dezente maila erakutsi nuela esperientzia handiko aurkari baten aurrean".

Irabazi beharra dauka Urnietak

FUTBOLA Gorengo Mailan, Urnietak ligako azken partida jokatu du larunbat honetan Orioko taldearen aurka. Bosgarren postuan saikatu behar dute igoera fasea jokatu nahi badute eta, horretarako, etxeko partida irabazi behar da, lehenik eta behin. Eta, ondoren, beste emaitzen arabera, lor dezake bosgarren postu hori. Partida 18:00tan hasiko da.



AIURRI



Urnietako
udala



andoaINDARRA
euskaraz

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ANTZERKIA

ANDOAIN "Zorretan"

Hika teatro konpainiak zaintzari buruzko tragikomedia sortu du. Otsailak 14, ostirala. 19:30, Bastero.

IKASTAROA

ANDOAIN Tailerra

Artxibo dokumentuen balio ezkutua aztertuko dute, familia albumak edota artxibo publikoak erabiliz. Otsailak 14, ostirala. 18:00-21:00, Urigain.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Langara

Futbolari ezaguna ardatz hartuta. Otsailak 15, larunbata. 12:00, Bastero. Irekiera-ekitaldia.

DANTZA

URNIETA "OTS"

Euskal musika garaikidearen sorburua, dantzara eramana. Otsailak 16, igandea. 19:00, Sarobe.



2020an ere Goiburu auzoan barrena ibili ziren axerriak, puska-biltzean. AIURRI

ANDOAIN Puska-biltzea

Goiburu auzoko baserri eta etxe atarrietan Axeri Dantzaren zazpi dantza edo jokoak (Aitarena, Zortzikoa, Orratzakoa, Korrika, Perra Jartzea, Borroka eta Dorrea) biziberrituko dituzte, arin-arin eta fandagoa dantza saioekin batera. Otsailak 15, larunbata.

BILERA

ANDOAIN Euskaraldia


Andoingo batzordeak bigarren bilera deitu du. Otsailak 20, osteguna. 18:30, Urigain.

MUSIKA

ANDOAIN Kanbalatxe tango

Entzuteko eta dantza egiteko proposamena Bastero-Kafe zikloan. Otsailak 21, ostirala. 19:00, Bastero.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

5 Septiembre
Otsailak 15, larunbata. 19:30.
Otsailak 16, igandea. 19:30.
Otsailak 17, asti. 17:00, 19:30.

Azerik eta Errik basoa salbatzen dute

Otsailak 15, larunbata. 17:00.
Otsailak 16, igandea. 17:00.
Bridget Jones:
Loca por el
Otsailak 22-24.



Langararen ibilbidea jaso duen erakusketa zabaltzean da

Isidro Langara aski ezaguna da adin bat dutenen artean. Golegile aparta, marka bikainen jabe da oraindik: Espainiako Ligan hiru partidatan segidan hat-trick-a egin duen bakarra da Langara. Eta selekzioarekin, proportzioan, inoiz baino gol

gehien sartu dituen da: 12 partidatan, 17 gol. Larunbat honetan haren omenezko erakusketa zabalduko dute Bastero Kulturgunean. Irekiera-ofiziala eguerdiko 12:00tan da. Hainbat astez jokalaria loturiko hainbat objektu ikusgai izango dira, Real Oviedo fundazioaren museora eraman aurretik. Goi mailako futbolaren historia da Langara.

KOMUNITATEA

ZILEGI ESKOLA URNIETA

Zilegi eskolaren hitzordu berria, Urnietan, hilaren 27an

Otsailaren 27an, arratsaldeko 18:00etan hasita, Iñigo Gutierrezek saioa emango du: "Bihotzez hizketan. Nola lagundu bizitzako azken fasean". Tailerra kiroldegiko boxean izango da. Saioa doakoa izango da eta komeni da alde aurretik izena ematea, lekuak mugatuak baitira. Bi bide: zilegieskola@aek.eus edo 662 338 747. Urnietarrak animatu nahi ditugu saiora etortzera.

ZOZKETA



Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

AiurriKIDeen artean 2 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Parte hartzeko modua:

Idatzi "Isidro", zure izen-abizenak eta bidali:

* Whatsapp: 619 163 537

* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitzez AiurriKIDE

AIURRI KIDE

"Osaba Isidroren maleta" ipuin musikatua

Junkal Guerrero eta Udal Musika Eskola

Otsailak 23, igandea
12:00. Bastero, Andoain

Estreinaldia: Isidro Langararen bitzta eta ibilbidea, irudiz eta musikaz kontatzen duen ipuin musikatua.

Testua: Juan Krutz Igerabide.

Musika: Junkal Guerrero.

Oholtzan ariko dira Udal Musika Eskolako tailerretako ikasleak eta txikien abesbatza.

Abesti intimistak, Ganbara tabernan

Adrian Perez abeslariak ibilbide oparoa osatu du musikagintzan. Igande honetan, Unai Pelayo "Pelax"-ek lagunduta, kontzertua emango du Andoaingo Ganbara tabernan. Adi, ordutegiarekin: eguerdiko 12:00tan hasiko da kontzertua

Xabier Lasa ANDOAIN

Adrian Perezek zehaztu duenez "tonu intimistako abesti mordoez beterikoak" dira azken aldian plazaratu dituen bi diskoak. "Lasai ederrean" 2022an eta "Lozorroan epel" 2024ko urrian, hain zuzen. Bi diskoetan, Perez bera da abesti guztien hitzen eta doinuen konposatzailea; Unai Pelayo ekoizpenaz, konponketez eta grabaketaz arduratu da.

Bi diskoetan oinarrituko da kontzertua: "Ordubete inguruko emanaldia izango da. Ez da ohiko ordutegia eta ez dakigu nola erantzungo duen publikoak. Taberna giroa badakigu nolakoa den eta ez dugu erabateko isiltasuna eskatzen, baina eskertuko genuke pittin bat erne egotea".

Bi CDen izenburuek igarri arazi dezakete, akaso, edukiaren nondik norakoa. "Ukitu intimoa daukaten proposamenak dira biak ere, esan bezala". Abestien hitzak nahiko ikuspegi pertsonaletik jorratu dituela aitortu du Perezek, eta gai anitz dituzte hizpide batzuk "osasun mentala, amodioa-desamodioa, heriotza, gerra...". Beste batzuk, halaber, badute aldarrikapenetik ere zer edo zer, urtetan aurrera doan pertsonaren ikuspegi eta jarrera errebindikatze-ko nahia ere islatzen dutela, alegia: "Gaztetasuna baloratzen da gaurko gizartean, eta badi-rudi 60tik aurrera goazenok ez daukagula zer esanik, zer eginik, ez musika egin, ez ezer".

la 20 urteko isiltasuna

Emankortasunez eta eskarmen-tuz jositako musika ibilbidea eginga du Adrian Perezek. Mogollon, Mal de Ojo eta Haragi Gordiña taldeekin Popa, Rock&Rolla eta Rumba estiloak jorratu zituen, eta arrasto sakona utzi zuen euskal panoraman bere-berea zuen ahots eta kantatzeko modu ahaltsu eta erakargarri haiekin.



Unai Pelayo 'Pelax' eta Adrian Perez, entsegu-gelan. AIURRI

Geroztik, urte mordo egin zuen geldia egonean Perezek. "Kokoteraino bukatu nuen, eta zuzenekoak utzi egin nituen. Mal de Ojorekin han eta hemen, makina bat tokietan ibili ginen, eta nekea sentitzen nuen. Gainera, ohartzen nintzen aldatzen ari zirela musika kontsumitzeko ohiturak gizartean, eta ez nuen gogoko giro hura. Gu bezalako taldeen zuzeneko kontzertuen estimazioa jaisten ari zen eta DJak indarra hartzen. Erakundeetako kultur programatzaile batzuek ere nonbait ikusi zuten merkeagoa eta errazagoa zela DJak kontratatzea, Rock&Rolla baino...".

Unai Pelayo "Pelax" iloba musikaria ondoan eduki du Adrian

Perezek, ia bi hamarkadatan luzatu den isiltasun hori hautsi zuenetik. Oso gustura ari dela osabarekin, aitortzen du "Pelax"-ek, "Umetan eta gaztetan zuzeneko ikusteko aukera eduki nuen, bai; badauzkat oroitzapen batzuk, Egiako Gazteszena-eta umea moko nintzenetik. Etxean ere, melomano hutsak nituen gurasoak, eta 12 urte nituela, identitatea azaltzen hasten den urte horietan-edo talde batean jotzeko gogo sortu zitzaidanean, Adrianek bere gitarra utzi zidan. Oraindik ere erabiltzen dut, eta eramango dut Andoainera. Bada, pentsatzen dut mesede haren-gatik esker oneko azaltzeko modu bat badela orain berarekin jozteaz".

Aldaketak iragarri dituzte aurtengo Kaldereroen etorreran

Datorren otsailaren 22an Kaldereroen etorrera izango da Andoainen, eta ospakizunaren antolatzaile den Gora Kaletxiki txarangak hainbat berrikuntza iragarri ditu. Hasteko eta behin, aurten Arrate plazatik abiatuko

dira arratsaldeko 17:00tan. Arteta eta Agustin Leitza kaleetan barrena Goikoplazara iritsiko dira eta, bertan, txokolata beroa banatuko dute 18:00etatik aurrera. Ohiko hitzaldiaren ostean, kalejirak Kale Nagusiranzko bidea hartuko du Zumea plaza iritsi bitarte. Zartagia eta mailua hartzeko gonbita luzatu du antolaketa taldeak.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Uxue, Unai eta Jon

Urtarrilaren 18an Unai eta Jon 7 urte bete zituzten eta Uxuek otsailaren 4ean 10 urte. Zorionik beroenak etxeko hiru altxorrei. Segi hain jator eta alai. Asko maite zaituztegu!



ANDOAIN

Jon Loiarce

Jon Loiarce 13 urte beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak mutiko! Irrifar hori ez dadila inoiz desagertu! Aupa zu! Etxekoak.



ANDOAIN

Ane Etxezarreta Jauregi

Anek 10 urte beteko ditu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.

MERKATU TXIKIA

ANDOAIN | ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorra badira hobeto! 650341108.

ANDOAIN | SALMENTA

Bi ohe artikulatu salgai, koltxoi eta somierrak barne. Berri-berriak. 664 462 517

Intereseko iragarkia argitaratu nahi izanez gero bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsappez: 619 163 537



ANDOAIN

Zorionak Aitor!

Otsailaren 18an 5 urte betetzen dituzu. Ondo pasa era muxu handi bat amona Begoña eta aitona Mikelen partetik.



URNIETA

Zorionak Peio

Peio, zorionak! Otsailaren 20an HAMABOST urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.

KOMUNITATEA

EGUZKI ANDOAIN

"Leitzararen aukerak eta arriskuak", hitzaldia Arturo Elosegiren eskutik

Euskal Herrian Ekologian dagoen aditurik handienetakoa, Leitzarain bailarak dituen balio eta gaitasunez arituko da baita hauek mantetzeko edo/eta berreskuratzeko ugaritzen ari diren arriskuaz ere. Zuhaitz landaketa herrikoia ere egitekoak gara otsailaren 22an.

Hori baino lehen, Eguzki Talde Ekologistak hitzaldia antolatu du otsailaren 19an, asteazkenarekin, 19:30ean hasita Bastero Kulturgunean. Hitzaldia Arturo Elosegik emango du "Leitzararen aukerak eta arriskuak" goiburupean. Biologian Doktorea, ibai-ekologia aditua eta Ekologian Katedraduna da EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

2024an basoaz, basoen funtzioez eta berau kudeatzeko aukeraz entzuteko bidea izan bagenuen, aurten ikuspegi zabaldu eta Leitzarain baila osotasunean hartu dugu. Hango aberastasuna biologiari nahiz ekologiari buruz hitz egingo digu. Hala nola horiek mantendu edo hobetzeko ugaritzen ari diren arriskuak: lur nahiz aniztasun biologikoaren galera, energia azpiegiturak (zentral hidroelektrikoa nahiz eolikoak), aisialdia-turismoa, monolaborantzak, baliabideen ustiaketa neurrigabea... Eta nola ez baso orekatu eta natural batek honetan guztian jokatzeko duen papera. Jarduera hauek eta beste batzuk mendiak eta, batez ere, Andoaingo mendi publikoen kudeaketa zehazteko balio izatea nahi genuke. Hitzaldia erabat lotuta dago otsailaren 22an egin behar dugun beste ekintza batekin, zuhaitz landaketarekin. Ekimen herrikoia antolatu dugu data horretarako. Irteera puntua Otietako aparkalekuan izango da eta argibide gehiago emango ditugu hitzaldian.



Adarra klubeko Peio Santos, Maialen Lopez, Urtzi Iriondo eta Borja Seco Urnietako kiroldegian egokitu zuten tatamian. AIURRI

Domina lortu dute Euskadiko junior txapelketan

Euskadiko onenak elkartu ziren, Urnietan, aurreko asteburuan. Urnietako kiroldegia eskaintzen duen erosotasunaz gozatu zuten, gainera, lehiakide guztiek. Izan ere, judoan aritzeko tenperatura egokia behar da. Adarrakoen emaitza bikaina izan zen

Xabier Lasa eta Joni Ubeda URNIETA Aurreko asteburuan, Urnietan, junior mailako Euskadiko judo txapelketa jokoan izan zen eta Adarrako ordezkarien emaitza ez da oharkabean igaro. Lau lehiakide izan ziren, horietatik bi kadete mailakoak, eta laurak domina jantzita itzuli ziren etxera. Iker Lizarribar Bengoetxea prestatzaileari zor zaio, hein batean, lorpen horien meritua. Andoaindarra pozik dago, "bereziki, gure bi ordezkari, kadete mailakoak izanik, junior maila-

koen aurka lehiakorrak izan zirelako. Emaitzak oso onak dira, esan bezala, gure klubeko Maialen Lopez eta Peio Santos kadete mailakoak direla ikusita. Borja Seco urrea lortu zuen eta, hurrengo asteetan, Espainiako prestatu behar du. Eta Urtzi Iriondok oraindik sailkatzeko aukera badauka. Ondo legoke Adarrako bi ordezkari Iruñean ospatuko den txapelketan izatea". Asteburua igarota, astelehenean, Adarrakoen prestaketa saiora hurbildu zen Aiurri.

Borja Seco Navas (junior), urrezko domina

100 kilo azpikoen artean Euskadiko txapelketa da. Dagoeneko hirugarren urrezkoa du eta junior mailan oraindik ere beste urte batez lehiatzeko aukera izango du. Txapelketa galdera eginez, bistan da, pozik dago: "Sentsazio onak izan nituen txapelketa osoan. Lau borrokaldi egin nituen, honaino iristeko gogor entrenatu dut. Denborarekin askeago nabilela iruditzen zait eta oso pozik

berriro ere txapelketa izan naitzela. Akaso, lehiaketa bakoitzeko urduritasuna hobeto kudeatzen dut ikasi behar dut". Eta herrian bertan lehiatzea zer moduzko esperientzia izan da? Secorentzat lagungarria izan da, oso: "Herrian bertan aritzean, harmailetatik laguntza handia jaso nuen. Etxean aritzeak ez nau hain urduri jartzen, hasiera batean beldur modukoa sentitzen da baina tamamira atera eta zure izena harmailetatik oihukatzen dela ikusita urduritasun guztiak uxatu egiten dira". Euskadikoan urrea lortuta, Espainiako txapelketa helburu du orain. Martxoaren amaieran izango da Iruñean, eta lan ona egiteko motibazioa ez zaio falta. Lehen ere, zazpi garren izan da junior mailan. Eta kadete mailan, 3. eta 5. postuan sailkatu izan da.

Maialen Lopez Martiarena (kadete), brontzezko domina

Kadete mailan aritzeko adinean da, baina Urnietan junior mailako txapelketan lehiatzeko erabakia hartu zuen. 48 kilo azpikoen artean aritu zen: "Izena eman nuen esperientzia hartzeko baliagarria delako. Adinean zaharragoak direnen aurka lehiatzea egokitu zitzaidan. Emaitzei begira ez nuen ezer espero eta brontzezko domina lortu nuen. Beraz, pozik nago. Esan bezala, lehiatzea ondo dago esperientzia handia hartzen delako. Asko ikasten da, bereziki, zaharragoen aurka lehiatuz. "Hiru borrokalditan parte hartu nuen. Ariketa batzuetan gaizki aritu nintzen baina ziur nago denborarekin hobetzen joango naizela. Maila handiko lehiakideak izan nituen parean eta ahal nuena egin nuen". Saiatua da Lopez, astean hirutan hurbiltzen baita kiroldegira

prestaketa-saioretan parte hartzera. Eta hori gutxi ez eta, ostiralero, Anoetako kiroldegiko prestaketa saio irekietara joateko ohitura du. Judoan ibilbide laburra egin du, lau urtekoa besterik ez. Antza, gogoko kirol jarduera aurkitu du. Gainera, "Urnietan bertan eta beste klubetako kideekin artean oso giro ona dago".

Peio Santos Uranga (kadete), brontzezko domina

60 kilo azpiko txapelketan brontzezko domina lortu zuen, lau borrokaldietan parte hartu eta gero. Lehen bietan garaile izan zen eta gerora txapelketa izan zenaren aurka galdu zuen. Azken borrokaldian irabazi zuenez, brontzezko domina eskuratu zuen: "Pozik nago helburua podiumera igotzea zelako. Lortu nuen". 16 urterekin, meritu handikoa da brontzezkoa, 21 urte bitarteko lehiakideen aurka borrokatu behar duelako.

Urtzi Iriondo Goikoetxea (junior), brontzezko domina

81 kilo azpiko mailan lehiatu zen, aurreko asteburuan. Gazi-gozoa izan zen esperientzia Iriondorentzat: "Lehen borrokaldian hankasartze handia egin nuen. Irabazten ari nintzela, azken segunduan, txakalaldia izan nuen. Pisuan sartzeko gutxi jan eta edan nuen aurreko bi egunetan, eta horren eraginez estuasunak izan nituen. Hurrengo borrokaldietan, ordea, aldarrea hobetu eta dezenteko txapelketa egin nuen. Gerora txapelketa izan zenaren aurka galdu nuen, baina gainerako lehia guztietan garaile izan nintzen". Iazko postu bera errepikatuta, pozik dago Iriondo eta hobetzeko aukera badauela uste du. Besteak beste, alor psikologikoan.